

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 14/2020 Foru Dekretua, apirilaren 7koa. Onestea nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen oinarri arautzaileen aldaketa eta 2020rako laguntza-lerro honen deialdia

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren bidez, 06.1 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" neurri bideratutako laguntzen oinarri arautzaileak onetsi ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren esparruan, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritako mugen barruan, eta laguntza horren 2016rako deialdia ere onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretuaren bidez, laguntza horien oinarri arautetako batzuk aldatu ziren eta 2017rako deialdia egin zen.

Europako Batzordearen C(2017) 3859 erabakiaren bidez onetsi zen EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren bigarren aldaketaren ondorioz, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 11/2018 Foru Dekretuaren bidez, berriro ere aldatu ziren aipatutako oinarriak, aldaketa horren arabera egokitzeko eta oinarrien alderdi batzuk zehaztu eta argitzeko, eta 2018ko ekitaldiko laguntzen deialdia ere onetsi zen.

2018ko abuztuaren 13ko Europako Batzordearen C(2018) 5542 erabakiaren bidez onetsi zen EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren hirugarren aldaketaren ondorioz, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 26ko 10/2019 Foru Dekretuaren bidez, berriro ere aldatu ziren aipatutako oinarriak eta 2019ko ekitaldiko deialdia ere onetsi zen.

2019ko abuztuaren 12ko Europako Batzordearen C(2019) 6120 erabakiaren bidez, EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren laugarren aldaketa onetsi da, zeinak laguntza-lerro honi eragiten baitio, eta, beraz, beharrezkoa da oinarri arautzaileak aldaketa horien arabera egokitzea; horrez gain, beharrezkoa da beste aldaketaren bat egitea, zeinak, Europako Batzordearen erabakiak ezarria ez izan arren, oinarriak hobeto ulertzen eta aplikatzen lagunduko baitu.

Bestalde, kontuan izanik kreditu nahikoa dagoela laguntza-lerro hori izapidetzeko Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastu aurrekontuan, beharrezkoa da deialdia onestea.

Foru dekretu hau idazteko, kontuan hartu da honako lege hauek xedatutakoa: Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretua.

Nahiz eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez alarma egoera deklaratzeko baita COVID-19k eragindako osasun krisi egoera kudeatzeko, xedatzen duen, alarma egoerak irauten duen bitartean, oro har etetea abian diren lizitazioen terminoak, epeak edo izapidetza, haiek ez eteteko erabaki arrazoitua hartzeko aukera ere onartzen du.

Aintzat hartuta dirulaguntza deialdi honen interes publikoa, diruz lagundutako jarduera ezinbestekotzat jotzen da interes orokorrerako.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta haien ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea honako aldaketa hauek egiteari 06.1 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" neurri bideratutako laguntzen oinarri arautzaileetan, zeinak ezarrita baitaude honako hauek aldatutako Diputatu Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren eranskinean: Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 9/2017 Foru Dekretua, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 11/2018 Foru Dekretua eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 26ko 10/2019 Foru Dekretua.

1. Gaztenek 2020 prozedura arautzen duen 9. artikuluko 3.3. apartatua aldatzea. Hona hemen nola geratuko den idatzita:

9.3.3 Nekazari gazteek enpresak sortzeko eskabideari beharrezko kontrolak egin ondoren, Gaztenek 2020 Balorazio Batzordeak honako hau egingo du:

– Eskabideari puntuazio jakin bat emango dio, laguntza arautzeko oinarri hauen 10. artikuluan ezarritako puntuazio irizpideen arabera.

– Laguntzaren zenbatekoa kalkulatu du, lortutako puntuazioaren arabera, oinarri hauen 11. artikuluan ezarritako tarteak aplikatuz.

Horrez gain, batzordeak pertsona gazteari enpresa plana abiarazteko eta garatzeko prozesuan laguntza eta aholkularitza eskainiko dizkion tutorea izendatuko du. Gaztenek 2020 Balorazio Batzordeak, enpresa planaren ezaugarrien arabera, proiekturako aholkularitza aurreikusteko gutxieneko baldintzak finkatuko ditu (orduak, bisitak, txostenak, etab.).

2. . Espedienteak hautatzeko irizpideak finkatzen dituen 10. artikuluko 1 apartatua aldatzea. Hona hemen nola geratuko den idatzita:

10.1 Laguntza emate aldera espedienteak aukeratzeko irizpideak urteko deialdi bakoitzean finkatuko dira puntuka, aintzat hartuz enpresa planean egin beharreko inbertsio eta gastuak, ustiatzean pertsona gazteak zenbait ekoizpen eredu jakin aplikatzen dituen, edota sektorearekin eta elkartegintzarekin alde aurretik lotura duen.

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Enpresa planean aurreikusita dauden eta 04.1 neurriaren eta 04.2 neurriaren bidez diruz lagundu ezin diren inbertsioak eta gastuak (lurrak erostea, eskubideak erostea, abereak erostea, lurrak alokatzea...): 1 puntutik gehienez 14 puntura.

Gastu baremagarriak laguntzarako eskaera aurkezten den egunetik aurrera bereganatutakoak edo egindakoak izango dira.

Enpresa plan berbera partekatzen duten pertsona batek baino gehiagok sustatutako proiektu kolektiboen kasuan, zenbateko baremagarriak eta puntuen esleipenak planean aurreikusitakoari jarraikiz lanean hasiko den pertsona gazte bakoitzaren arabera izango dira. Hau da, ateratzen den zatizetik irizpide honen arabera jasotako eta enpresa planean aurreikusitako diru sarrera bolumena eta gazte partaide kopurua, bakoitzak proiektuan duen partaidetza portzentaiaren arabera. Gainerako irizpideetarako, puntuak sartzen den gazte bakoitzari aplikatuko zaizkio osorik.

Inbertsio/gastuaren gutxieneko zenbateko baremagarria 20.000,00 euro izango da, eta gehienekoa 100.000,00 euro, planeko gastu baremagarrien guztizko inbertsioa handiagoa izan arren.

Puntuen esleipena gastu baremagarrien bolumenaren arabera izango da, eta honen arabera esleituko dira:

– 20.000,00 eurotan edo gutxiagotan baloratutako inbertsioei zero puntu emango zaie.

– 20.000,00 euro baino gehiagotik 100.000,00 eurora bitarteko (zenbateko hori barne) inbertsioen kasuan, eman beharreko puntuen kalkulua egiteko baloratutako zenbatekoari 20.000,00 euro kendu eta emaitza bider 0,000175 egin beharko da.

Emaizta zenbaki dezimala bada, zenbaki oso batera biribilduko da. Bi hamarren hartuko dira kontuan.

– 100.000,00 eurotan edo zenbateko handiagoan baloratutako inbertsioei 14 puntu emango zaizkie.

b) Titulartasun partekatuko nekazaritza ustiategi batean sartzea edo sartzen den gaztea emakumea izatea. Kasuistika hori betetzen badu, 7 puntukoa izango da; bestela, ez da puntuatuko.

c) Eskatzaileak 39 urtetik gora izatea. Kasuistika hori betetzen badu, 2 puntukoa izango da; bestela, ez da puntuatuko.

d) Nekazaritza jarduera dela eta soilik Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten eskatzaileak. Kasuistika hori betetzen badu, 2 puntukoa izango da; bestela, ez da puntuatuko.

e) Ekoizpen ereduak: Ustiategian, gutxienez 0,5 NLU primarioari dagokionean, ekoizpen eredu jakin batzuk ezartzea puntuatuko da. Kontzeptu horrengatik gehienezko balioak 10 puntu eta NLU bat izango dira (5-10 puntu eredu horietakoaren bat ezartzen bada, eta, gehienez ere, bi pilatu ahal izango dira).

Ekoizpen eredu hauek izango dute lehentasuna:

– Ekoizpen Ekologiko Ziurtatuari edo 3.1 neurriak babestutako Kalitate Ziurtatuko Programetako bati atxikitako ustiategiak.

– Nekazaritza eta ingurumen kontratua duten ustiategiak, LGP honetako 10 neurrian ezarritakoaren arabera.

– Laborantza ureztatu estentsiboko gutxienez 10 hektarea dituzten ustiategiak (kontsumorako eta erreibiteko patata, erremolatxa, baratzeak, laboreak, tabakoa eta bazka laboreak).

– Ekoizpenaren gutxienez ehuneko 40 zirkuitu laburren bidez merkaturatzen duten ustiategiak, 16.4 neurrian jasotako definizioaren arabera.

– Ekoizpenaren ehuneko 50 baino gehiago ekoizleen kooperatiba baten bidez edo EAEk ofizialki aitortutako ekoizpen talde baten bidez merkaturatzen duten ustiategiak.

– Ekoizpen integratuko ustiategiak.

f) Aldez aurretik sektorearekin lotura izatea: aldez aurretik sektorearekin loturarik izan ez bada, hau da, inkorporazio berri bat bada edo ustiategiaren titulartasuna eskuratzen bada eta ez bada titularrekiko lehen edo bigarren mailako familia loturarik.

Kasu horietan, enpresa planean adieraziko da, eta 5 puntu emango zaizkio.

g) Elkartzea: sektorean lehen aldiz jardungo duen gazte batek baino gehiagok enpresa proiektu berri bat elkarte gisa haien gain hartzea; gehienezko muga bi NLUkoa izango da. Egoera hori enpresa planean jasotzen bada, proiektuari gehienez 5 puntu emango zaizkio. (≥ 2 NLU = 5 puntu).

3. Aldatzea 22. artikuluko 4. apartatua, zeinak beste laguntza eta jarduera batzuekiko bateragarritasuna arautzen baitu. Hona hemen nola geratuko den idatzita:

Pertsona beste ikasketa batzuk egiten edo beste jarduera bat gauzatzen ari bada, Balorazio Batzordeak erabakiko du aurkeztutako enpresa plana abian jartzearekin bateragarriak diren.

4. Aldatzea I. eranskineko "Ustiategiaren marjina garbia" eta "Nekazaritzako lan unitatea NLU"; zeinak kalkulatzeko aplikatu behar baita Garapen Ekonomikoaren eta Lehiakortasunaren Saileko 2016ko martxoaren 31ko Agindua, zeinak ezarri baitzituen laboreen marjina gordinak, nekazaritzako lan unitateak (NLU) zehazteko modulu objetiboak eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza ustiategietako gastu finkoen koefizienteak.

Enpresa plana egitean marjina garbia kalkulatzeko, NPEren lehenengo zutabeko dirulaguntzak soilik hartuko dira kontuan, alde batera utzita behi ume-hazleen hobaria (I. eranskinaren "Ustiategiaren marjina garbia" ataleko bigarren paragrafoa).

5. Aldatzea II. eranskina. Hona hemen nola geratuko den idatzita:

II. ERANSKINA

Eskaera egileak aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta ustiategiak aurkeztu beharrekoa, eskatzailea ustiategitegiren batean lanean hasiz gero

Laguntza eskatzen duen pertsonak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu epe eta forma egokietan:

1. Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta izenpetuta.
2. NANaren fotokopia.
3. Lan bizitzaren txostena.
4. Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena ez dela inoiz izan nekazaritza ustiategi baten titularra den eta izaera juridikoa duen elkarte baten titularra, titular kidea edo bazkidea, eta ez duela gauzatu ustiategiaren benetako kontrola horrelako elkarteren baten bidez.
5. Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena, ustiategi baten titularra izan bada, ez duela ustiategi horren benetako kontrola eduki.
6. Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena, ustiategi baten titularra izan bada, ustiategi horrek ez dituela gainditzen oinarri hauetan ezarritako mugak.
7. Hirugarrenei alta emateko fitxa.
8. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearen ziurtagiria edo, bestela, laguntza kudeatzen duen organoak datuak eskatu ahal izateko baimena.
9. Eskabidea egiteko unean lan gaitasuna eta eskumena izatekotan, horien egiaztagiriak aurkeztea, edo bestela, laguntza arautzen duten oinarrietan ezarritako epeetan gaitasuna eta eskumena eskuratzeko konpromisoa.
10. Ustiategirako enpresa plana, laguntza arautzen duten oinarri hauen 7. artikulua araberan.
11. Laguntza arautzen duten oinarrien arabera eskaera egileak hartutako konpromisoak betetzeko konpromisoa duela frogatzen duen agiria.
12. Beste erakunde publiko edo pribatu batzuei helburu eta xede berberetarako laguntza eskatu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena.
13. Ustiategiaren emaitzen kontua.
14. Ustiategiko soldatapeko langileen kopurua.
15. Hala badagokio, ustiategiaren titularra den elkartearen (edo bertan sartu den gaztearen) konpromisoa, honako ekoizpen ereduetakoren bat erabiliko duela adierazten duena:
 - ekoizpen ekologiko egiaztatua.
 - ekoizpen integratua.
 - nekazaritza eta ingurumen kontratua.
 - nekazaritza ekoizpena zirkuitu laburren bitartez merkaturatzea.

- nekazaritza ekoizpena kooperatiben bitartez merkaturatzea.
- laborantza ureztatu estentsiboko ekoizpena (gutxienez 10 hektarea).

Gaztea aldez aurretik dagoen elkarte ustiategi batean instalatzeko bada, aipatutako agiriez gain:

1. Eskatzailea zein ustiategitan sartzen den, haren kideen baimena, bazkideetako bakoitzari buruz behar den informazio pertsonala biltzeko, laguntza izapidetzean erabili ahal izateko.

2. Ustiategiaren konpromisoa, gaztea instalatzen amaitzean gobernu organoko kide izan dadin eta partaidetza handiena duen bazkidearen adinako kapital soziala edo handiagoa eduki dezan.

3. Ustiategien Erregistroaren ustiapen fitxa.

4. Eskatzailea zein elkartetan sartzen den, haren baimena, makinen, aziendaren eta ustiategien erregistro ofizialetan beharrezkoa den informazio guztia biltzeko, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari eta Arabako Foru Ogasunari beharrezkoak diren ziurtagiriak eta informazioa eskatu ahal izateko, espedientea ebazteko beharrezkoak badira.

5. Enpresak sortzeko nekazari gazteentzako laguntza eskatzen duen gazte bat ustiategi batean sartzean, ustiategiak hartzen dituen konpromisoen agiria.

6. Ustiategiaren NANaren edo IFKaren fotokopia.

7. Eraketaren eskritura publiko eguneratua eta kopia bat, konpultsatzeko.

8. Pertsona juridikoaren estatutuak eta horien kopia, konpultsatzeko.

9. Bazkideen izenen zerrenda, bazkide bakoitzaren kapital soziala eta bakoitzaren partaidetzaren portzentajea.

10. Artezkaritza Kontseiluaren osaera.

11. Hala dagokionean, bazkide langileen T-10 agiria.

12. Gainerako soldatapeko lana egiaztatzea, balego, azken urte edo kanpainako gizarte segurantzako kotizazioen ordainketaren ziurtagirien bidez.

13. Hala dagokion kasuan, aurkeztutako sozietateen zergaren aitopenen kopia, entitate sortu berriak izan ezean, aipatutako zergak likidatzeko legezko epea igaro ez bada.

14. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatearen eta pertsona juridikoaren (eta, hala badagokio, haren bazkideen) zerga betebeharrak beteta izatearen ziurtagiria.

Eskatzaileak Nekazaritza Saila eskuordetu dezake dagokien zerbitzuei 14. eta 1. puntuetan aipatutako ziurtagiriak eta agiriak eskatzeko.

15. Gaztea ustiategian onartzeko erabakiaren ziurtagiria.

16. Jaraunspen erkidegoei dagokienez, indibisio ituna, gutxienez, 6 urtekoa, eskabidea aurkezten den egunetik aurrerakoa. Elkarteko kide guztiek sinatu beharko dute ituna.

Bigarrena. Dirulaguntza lerro honen 2020ko ekitaldiko deialdia onartzea (LGENFk jartzen du dirulaguntzen finantzaketaren ehuneko 80), honako ezaugarri hauekin:

a) Lekua, epea eta era: 30 egun naturaleko epean, foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ustiategiaren kokalekuko Nekazaritzako Eskualde Bulegoan edo Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuan. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Eskabideak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta, eskabideaz gain, foru dekretu honek onetsitako oinarri arautzaileen II. eranskinean jasotako agiriak aurkeztu beharko dira.

b) Hautaketa irizpideak: Deialdi honi lotutako laguntzak emateko espedienteen hautapen irizpideak foru dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileen 10. artikuluan ezarritakoak izango dira.

c) Dirulaguntzen zenbatekoak: 2020ko deialdiari lotutako laguntzen zenbatekoak oinarri arautzaileen 11. artikuluan ezarritakoak izango dira.

d) Kreditua gordetzea: Arabako Foru Aldundiaren 2020. urterako Gastuen Aurrekontuko 40.1.01.42.01.770.00.10 "Nekazari gazteek enpresak sortzea. Deialdi berria" partidaren kargura, guztira, 1.380.000,00 euroko zenbatekoa, urteka honela banatuta:

- 2020: 406.000,00 euro (Xedapen erref.: 20.1.20.105.1030/000)
- 2021: 234.000,00 euro (Xedapen erref.: 20.3.21.105.23/000)
- 2022: 250.000,00 euro (Xedapen erref.: 20.3.22.105.2/000)
- 2023: 240.000,00 euro (Xedapen erref.: 20.3.23.105.3/000)
- 2024: 250.000,00 euro (Xedapen erref.: 20.3.24.105.1/000)

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21.2.b) artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein ziozengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzazatik ere.

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu partidaren kreditu gehikuntzarik geratuz gero, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditua eskabidea horietan erabiliko da, dirulaguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideei jarraikiz.

Laugarrena. Deialdi honetan, laguntza honen onuradunak nekazaritzako enpresen mintegi batetik datozen gazteak ere izan daitezke, baldin eta mintegi hori erakunde publiko sustatzaile batek legez eratu bada. Mintegian egon diren bitartean bertan ustiatagia eduki duten gazteak ere laguntzaren onuradun izan ahalko dira. Pertsona horiek mintegian dauden bitartean aurkeztu beharko dute laguntza eskaera, egonaldiko azken urtean, luzeen jota. Kasu horretan, ustiatagiak edo gazte titularrak hobekuntza planetarako dirulaguntzak jasota eduki ahalko dute laguntza hau eskatu aurretik, enpresen mintegien esparruko ustiatagietan bakar-bakarrik.

Egoera horretan dauden gazte guztiek laguntza eskaera aurkeztu beharko dute, eta laguntza honen oinarri arautzaileetan ezarritako konpromisoak eta gainerako betekizun guztiak bete beharko dituzte.

Atal honen babespean emandako laguntzak estatu mailako laguntza gisa hartuko dira, eta Europako Erkidegoaren 2014ko ekainaren 25eko 702/2014 Erregelamenduaren esparruan emango dira; horren bitartez, nekazaritza eta basogintza sektoreetan eta landa eremuetan laguntzen zenbait kategoria barne merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluan aplikatuz. Laguntza horien finantzaketa Arabako Foru Aldundiaren funtsekin egingo da; espedienteak aipatutako arautegiaren 18. artikuluan eta dekretu honen laguntzen oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

Bosgarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurtsio guztiak ebazteko.

Seigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE